



ZORROTZ MORROTZ

64. ZBKIA, 2020ko UZTAILA




FUNTSEZKO JARDUERETAKO LANGILEAK

ISA BLANCO, PACO GUANTER, ITXASO ESPELETA,
AINGERU LOPEZ, AINARA GARCIA,
ZURIÑE CHAMIZO ETA IÑAKI BLANCO

ZORROTZAKO JAIK. BERTAN BEHERA?

Zorrotza

aek



Zalbidea 7
94 441 49 20
zorrotza@aec.eus
www.aek.eus

merezi
duzun
herria

ehbildu



MADDALEN
IRIARTE
OKINENA

m

egiteko

prest.

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

Erritmo eta eredu berriekin, baina gogotsu lanean

Une honetan, garrantzitsua da erantzukizun indibiduala zein kolektibo eskatzea. Birusak hor jarraitzen du, eta baliteke denbora batez harekin bizi behar izatea.

Auzoari eragiten dioten gaietan, beste erritmo eta eskema batzuekin bada ere, lan egiten jarraitu dugu. Baita garrantzitsuak diren gai orokorrageetan Bilboko Auzo Elkartearen Fedarazio kide garen aldetik. Zailtasunak izango ditugu, beti dauden bezala, baina krisialdi orokor honetan, zalantzarik gabe, lanean jarraituko dugu ilusioz eta irmotasunez arazoak konpontzen, Zorrotza gero eta auzo hobea izan dadin lortzeko. Hori da gure konpromisoa eta ilusioa, eta hori lortzeko zuen parte-hartzea espero dugu.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu hasiera-hasieratik modu solidarioan mobilizatu ziren pertsona guztiei, konfinamendu-egoerak sortutako beharrezanetan laguntzeko. Une honetan, inoiz baino gehiago... Animo eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldezakaria
64. zenbakia. 2020ko uztaila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behe

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

t @zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Iraitz Zuloaga

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldezakariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukien erantzule bakarra





**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

*cafe***txinbo**

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata. 10
Tel. 94 608 85 74



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

Bilboko Udalak #BilbaoUda2020 ekimena aurkeztu du barrutietan udan kulturaz eta aisiaz gozatzeko

Zorrotz Morrotz

Jarduera horiek ekainean, uztailan eta abuztuan gauzatuko dira hiriko barruti guztietan. Unean-uneke osasun-protokoloetara egokitua, aire zabaleko espazioetan eta leku itxietan egingo dira eta batez ere familiei begira antolatuta dira. Udal agintariak azaldu dutenez, programa honekin “hirako kultur programazioa sustatu da bertako artisten, agenteen eta erakundeen alde eginez”.

Besteak beste, antzerki, zirku, clown, magia, dantza, bertsolaritza eta musika emanaldiak eskainiko dira. Ekimen hau #BilbaoAurrea Udal Planaren barruan sartzen da, eta COVID-19ren egoerak gehien kaltetu dituen lanbide-sektoreetan ondorioak arintzea du helburu, sustatzaileen hitzetan.

Betiere osasun-neurriekin bat etorrira eta unean uneko protokoloak zorrotz beteta, Bilboko Udalak kalitateko kulturaren eta tokiko kultura-eragileen aldeko apustua egin du, auzoak musikaz, antzerkiz, dantzaz, magiaz eta literaturaz betetzeko, besteak beste. Horrela, kultura uda bete-betean proposatu du Udalak.

Era berean, Udalak ohartarazi du osasun-protokoloak zorrotz beteko direla ekitaldi

guztietan. Horretarako, formatu txikiko proposamenak izango dira, edukiera mugatuta egongo da eta publikoa eserita. Testuinguru horretan, kultura auzoetara hurbiltzeko xedea beteko da udal agintarien ustez: “auzok protagonismo handiagoa hartuko dute, erreferentzia-leku gisa, betiere edukiera txikiagoko eta herritarrengandik hurbilagoko ekitaldiekin”.

Ikuskizun horiek ahal denik eta bilbotar gehienengana irits daitezen, emanaldien bideoak eta irudiak zabalduko dira Bilbao Kultura, Bilbao Jaiak eta Bilbao Udala sare sozialetan. Gainera, ekitaldiei eta jardueri buruzko informazio guztia Bilbao Kultura kultur agendan egongo da eskuragarri.

Gure auzoari dagokionez, kale-antzerkia eta arte eszenikoen ekitaldi hauekin gozatzeko aukera izango ditugu Zorrotzako Azoka parkean:

Uztailak 16: 12:00etan.

Panpotx Kultur Elkarte: “Kattalinen bidaia”.

Uztailak 30: 12:00etan.

D’Albeniz: “Boom clap, magia gara!”.

Abuztuak 6: 19:30ean.

Markeliñe: “Crusoe”.

Abuztuak 20: 19:30ean.

The Funes Troup: “Aukerak”.

Laguntasuna Merkatarien Elkarteko udaberriko zozketak bere saria 500 euroan handitu du

Zorrotz Morrotz

Laguntasuna Merkatarien elkarteak urtero antolatzen ohi du udaberriko zozketaren sariaren irabazleak 1500 euro jasoko ditu aurtan, eta ohi bezala, goiz bakar batean gastatu beharko du sariaren dirua auzoko dendetan.

Zozketan parte hartzeko, elkarteko kide diren denden 8 ziguilu bildu behar dituzu, bakoitzak bere erosketa-tiketa duela. Uztailaren 3a da txartela emateko azken eguna zozketan parte hartzeko. Zozketa elkartearen egoitzan egingo da uztailaren 3an bertan, 20:00etan.

Portuko gunea bizilagunek erabiltzeko atontzea eskatu dio Auzo Elkarteak Udalari

Zorrotz Morrotz

Auzo Elkarteak bere sare sozialen profiletan jakitera eman duenez, Bilboko Udalarekin harremanetan jarri da gutun baten bidez, “duela hilabete batzuk egin zuen bezala”, Zorrotzako portu zaharraren egokitzapena ahalik eta lasterren egiteko, herritar guztiek eremu hori erabili eta goza dezaten. Elkarteak adierazi duenez, udal arduradunen esanetan laster

egin zitekeen zer bait zen, “horma bat bota eta pixka bat garbitzea” besterik ez baitzen.

Gainera, komunikatu horren arabera, gutun horixe baliatu dute galdetzeko zer jarduera mota egiten ari diren orain udalarena den eremu horretan. Izan ere, egunero hainbat ibilgailu mugitzen dira hor, eta semaforo bat jarri dute.

Bizkaiko lehen hondartza-futbol zelaia La Base futbol zelai zaharreko eremuan eraikiko dela argitaratu dute

Aitor Marín

Iñaki Gómez Mardones Bizkaiko Futbol Federazioko (BFF) presidenteak pasa den ekainaren 8an Bizkaiko Batzarretan iragarri duenez, bere erakundea hondartza-futboleko Bizkaiko lehenengo zelaia eraikitzeko lanean dabil. Batzarretako talde politikoen aurrean egindako agerraldian, “Bilboko Udalaren eta Kirol zuzendaritzarekin “hartu-emanak” daudela” azaldu zuen, eta azpiegitura berri honek milioi bat euroko kostua izango zuela.

Hurrengo egunean, El Correo egunkariak argitaratu zuen hondartza-futbol zelaia Zorrotza FC taldearen La Base futbol zelaia zeneko eremuan egingo dela adierazi ziola Mardonesek. Hedabide honi BFFeko presidenteak esandakoaren arabera, proiektua aldatu egin da lurzoruan kutsadura antzeman delako. Lur kutsatuak lur gaineko obrak egitera mugatu du egitasmoa. “Base bat egin eta hareaz beteko da”.

Halaber, Mardonesek El Correo egunkariari esandako hitzetan “zelai gehiago egiteko lekua dago, baina kontuan izan behar da zortzi edo hamar bat urterako instalazioak izango direla, Zorrotzako eremu honetarako hirigintza-planak daudelako”.



*Ettxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es




Mendigain etxaldea

Etxe orratz hau auzoko goiko aldean dau, mendi magalean, bere garaian, auzoko etxetalde goiena, bere gainean Napar-txuaren baserria eta ur depositoaren etxea, Ranerotarrena, besterik ez zegozan. Handik bere izena. Egin baino lehen, zegozan larretan, auzoko gazteak pelotagaz arintzen ziran holgetan, goiko ekipokoek irabazten ebien beti.



LEHEN



ORRAIN



Zorrotzako argazki zaharrak dituzu?
Zure argazkia
Zorrotz Morrotzen agertzea nahi duzu??
 Bidalguzu e-mail bat
zmorrotz@gmail.com
 helbide elektronikora gaiaren laukian "behin batean" jarriz.
 Mila esker!



ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

VÍA gráfica



viagraficzorrotza@gmail.com

Disenya

1^o urte



ZORROTZA F.C.
 kirolarekin,
 auzoarekin eta
 euskararen alde!

datorren ikasturteko
aurrematrikula
prematrícula
del próximo curso



aek
euskara praktikoa



Euskara-ikastaroak · Cursos de euskera

ESKAINTZA BEREZIA · OFERTA ESPECIAL

% 5eko deskontua, ordainketa malguagoa eta lehenetasuna.

Uztailaren 8ra arte, www.aek.eus webgunean ala Zorrotza AEK euskaltegian.

Ekainaren 25etik aurrera, telefonoz hartuko zaitugu: 663 080 976*

5% de descuento, pago más flexible y preferencia.

Hasta el 8 de julio en www.aek.eus ó en el euskaltegi, Zorrotza AEK.

A partir del 25 de junio te atenderemos por teléfono: 663080976*

*Aurrematrikula online egiteko aukeraz gain, eta konfinamendutik ateratzeko prozesuaren bilakaeraren arabera, laster jakinaraziko dugu aurrematrikulak euskaltegian bertan egiteko epealdia.

* Además de la opción online para formalizar la prematrícula, y dependiendo de la evolución de la desescalada, dentro de poco daremos a conocer el plazo para realizar la prematrícula en el propio euskaltegi.

www.aek.eus



“Amaren falta sumatzen dut eta asko maite dut nire herria, baina nire familia eta nire lekua hemen dago”



CARMEN ANDRANGO

Jatorria: Quito (Ecuador).

Noiztik: 2000. urtetik.

Adina: 59 urte.

Lanbidea: Gozoki-denda bateko saltzailea.

Duela hogeit hamar urte etorri zen gurera Carmen Andrango, senarra lan bila etorri ostean. Zortzi hilabete beranduagotik, seme-alabak ekartzea lortu zutenetik, zoriontsu bizi dira hemen. Gaur, gurean hazitako zortzi biloben amama da.

Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Vila
Argazkiak: Naroa Peña

Nolatan eta zergatik etorri zinen?

Nire herrialdeko egoera ekonomikoa ez zen batere ona, eta nire senarrak erabaki zuen hona lanera bakarrik etortzea. Hilabete batzuk pasa ondoren, ni etortzea erabaki nuen, eta azkenik, ni hemen egon eta 8 hilabetea, nire seme-alabak etorri ziren.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituetara moldatzea?

Bai, jakina, eta nire seme-alabak gabeko 8 hilabete horiek askoz gogorragoak izan ziren. Ez zen denbora asko izan, baina, nire seme-alabak etortzen ez baziren, pentsatuta neukan nire herrialdera bueltatzea. Zorionez, paperen gaia arindu ahal izan genuen, eta handik gutxira etorri ziren.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo auzokoaren antzekoa da?

Bai, benetan, desberdina da. Bizimodua oso desberdina da.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxiena?

Zorrotzak guztia gustatzen zait! Nire herrialdetik etorri nintzenetik Zorrotzara etorri nintzen zuzenean bizitzera. Maitasun handia hartu diot. Nire 4 seme-alabak hemen hazi dira, ikasketak, lagunak... eta, gainera, familia osatu dute, orain 8 biloba, 4 neska eta 4 mutil baitituz. Beraientzat parke ederrak daukete jolasteko eta lasaitasun handia, Zorrotza asko aldatu da etorri nintzenetik, eta inoizko politen dago. Gutxienez gustatzen zaidana zakarra den jendea da, baina horrelakoak, edonon daude.



Quitora askotan bueltatzen zara?

Ez naiz askotan itzultzen, bidaia-txartelak oso garestiak direlako, eta han etxea eduki arren, gastu handiak izaten dira. Bueltatzen naizen bakoitzean oporretan joango banintz bezala izaten da. 20 urte hauetan, 6 aldiz itzuli naiz. 3 urterik behin gutxi gora-behera. Nire ama Quiton dago, eta koronabirusaren krisialdia konpondu bezain laster, berarekin egon ahal izateko, bertara joateko asmoa daukat.

Zer da Ecuadorretik, zure herritik gehien sumatzen duzuna faltan?

Nire ama dudarik gabe... Bera ezin ikusi eta besarkatzea.

Nolakoa da eguneroko zure bizimodua?

Dendara etorri, etxean egon eta familia osoarekin paseoa atera. Ez dut askoz gehiagorako denborarik izaten normalean... (kar, kar!)

“ Janari-denda hau ireki baino lehen, senar-emazte bikote bat zaintzen hamasei urtez aritu nintzen, Zorrotzan bertan ”

Hemen gozoki denda batean egiten duzu lan, zure herrian lan berdina zeneukan?

Janari-denda txiki bat nuen, eta adineko senar-emazteak ere zaintzen nituen. Zorrotzara etorri nintzenean, 16 urte eman nituen beste senar-emazte bikote bat zaintzen, baina duela urtebete denda ireki genuen eta horretan aritzen naiz gaur egun.

Bukatzeko, Quitora berriro bizitzera bueltatzeko asmoa izan duzu edo Zorrotzan betiko geratzeko erabakia irmoa izan da?

Asko maite dut nire herria, baina familia osoa Zorrotzan daukat, beraz, nire bizitza hemen dago!



URKULLU
LEHENDAKARI

EUSKADI ZUTIK

jisaldiremos!!



POSTA BIDEZKO BOTOA

ZABALIK DAGO ERROLDAKO INSKRIPZIOAREN
ZIURTAGIRIA ESKATZEKO EPEA

HURBILEN DUZUN POSTA BULEGOAN ESKA DEZAKEZU

900 840 384

KONTSULTARAKO DOAKO TELEFONOA

postabidezkobotoa.eaj-pnv.eus

Zorrotzako jaiak egongo al dira?



Ospatuko ditugu aurten Zorrotzako jaiak? Auzotar guztiok buruan dugun galdera da hori. Bilboko Aste Nagusia, eta hainbat auzoetako jaiak bertan behera geratu ostean, ematen du egoera bide beretsutik joango dela gurean ere.

Testua: Igor Gutiérrez

Delako “normaltasun berria” iritsi da eta jendearen buruetan galdera bat dabil: egongo al dira auzoko jaiak? Bilboko Aste Nagusia, eta hainbat herri eta auzotako jaiak bertan behera geratu ostean, ematen du egoera bide bertsutik joango dela gurean ere. Hala ere, ez dago argi momentuz, kontuan hartuta egoera egunetik egunera aldatzen dela eta gure auzoan irailaren bukaeran izaten direla. Udalak isilik dirauen bitartean, auzoetako jai batzordeak bere lanarekin aurrera jarraitzeko zalantzan daude.

Maiatzean, Auzotarrok Bilboko auzoetako jai batzordeen koordinakundeak ohar baten bidez azaldu zuen eskutitz bat bidali ziola birritan Bilboko Udalari aurtengo jaien etorkizunari buruz hitz egiteko eta bilera bat eskatzeko jaietako zinegotziarekin. Alferrik, erantzunik ez zuela jaso salatu baitu Auzotarrokek.

Ildo beretik, egun batzuk geroago etorri zen Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako jai eragileen prentsa oharra. Udalek “modu ez konpartituan eta aldebakarrez” hirietako jai nagusiak bertan behera uztea eta “erabakiaren berri prentsara bota baino minutu gutxi batzuk lehenago edo zuzenean prentsaren bidez” jasotzea gogor salatu zuten. Bilbon, erabaki hori udaleko alderdi politikoak, Bilboko Konpartsak eta bestelako eragileak biltzen dituen Jai Batzorde Mistoan (Aste Nagusia antolatzen duen batzordean) jorratu gabe ere hartu zen, alkatetzatik zuzenean.

Momentuz, Udalaren aldetik auzoetako jaiak bertan behera uzteko araurik ez dute jaso jai batzordeek, “baina arduragatik prestaketa lanak bertan behera utzi ditugu, luzeak eta zailak baitira” adierazi du Nerea Zuloagak, Zorrotzako Jai Batzordeko eta Auzotarrok koordinadorako kideak. Egoera ikusita eta udalaren erantzun falta kontuan hartuta, “jai

batzorde bakoitzaren esku dago jaiekin zer egin erabakitzea” salatu du Zuloagak. “Batzuek adibidez oraindik ez dute jaiak egiteko aukera baztertu”. Bere garaian, Udalak maiatzeko eta ekaineko jaiak atzeratzeko aukera eman ziola adierazten du Auzotarrok, “baina noiz arte?” Egoera konpontzeko hitz magikorik ez dagoela onartu arren, auzoei helarazten ez zaien informazioa dagoela uste du Zuloagak.

Egunotan, udalak Bilbao Uda 2020 egitaraua aurkeztu du, besteak beste, antzerkia, musika edota dantza bezalako ekitaldiekin. Horietako batzuk auzoetan egingo dira eta kalean. Zorrotzan, esaterako, lau kale-ikuskizun, uztailean eta abuztuan, bina. Egitarauan bertan, segurtasun-neurriei eskainitako atal bat agertzen da. Neurri orokorre dagokionez, norberak ekarritako musukoa erabiltzea derrigorrezkoa da eta, era berean, ikuskizunaren eremuan sartzekoan eskuak garbitzea. Kale-ikuskizunen kasuan, gainera, aukietan eserita egon beharko da, elkarrengandik 1,5 metroko distantziara, edukiera bete arte. Sarrera 15 minutu lehenago hasiko da etorrera-ordena errespetatuz. Balizko auzoko jaietarako protokolo gisa ezarriko ote da? Ikusteko dago.

Edonola ere, kezka handia dago auzoetako jaiak direlako, batez ere, jai batzordeen diru iturri nagusia, urtean zehar egiten diren ekintzak finantziatu ahal izateko. “Auzoko ostalari eta merkataritxikiei ere onura egiten die jaiak ospatzeak, indargune handia baitira” nabarmendu du Zuloagak. Orain inoiz



Momentuz, Udalaren aldetik auzoetako jaiak bertan behera utzeko araurik ez dute jaso Jai Batzordeek, “baina arduragatik prestaketa lanak bertan behera utzi ditugu, luzeak eta zailak baitira”

baino gehiago auzoko komertzioei laguntza hori bermatzea garrantzitsua dela uste du Auzotarrok koordinadorak, horregatik, udako ekintzak egiten direnean, “parke soil batean ospatu beharrean, auzoetan barna ekimen txikiak antolatuta ditzan” proposatu zion Udalari, “gure iritzia entzuteko prest agertzen denean”.

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**




ETXERA

**GORA
HERRIA!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA



FUNTSEZKO JARDUERETAKO LANGILEAK: Isa Blanco, Paco Guanter, Itxaso Espeleta, Aingeru López, Ainara García, Zuriñe Chamizo eta Iñaki Blanco

Ainara García, Gurutzetako ospitaleko kardio-kritiko unitatean erizaina; Itxaso Espeleta Gurutzetako ospitaleko ZIUn erizaina da; Paco Guanter, Itxasoren senarra, zerbitzuetako langilea zen Basurtuko ospitalean pandemia garaian, eta orain Urdulizen dago; Isa Blanco Santa Marina ospitaleko larrialdietako zerbitzuan erizaintzako auxiliarra da; Aingeru López eta Zuriñe Chamizo Zorrotza zahar-egoitzako gerokultoreak dira; Iñaki Blancok koronabirusa zuten gaixoak egon diren ospitaleetako arropak garbitzen aritu den garbitegi industrial batean egiten du lan.

Guztiak funtsezko jardueretako langileak dira, eta pandemiak gogorren jo zuenean, lanean jo ta su ibili ziren gu gehienak etxean konfinatuak ginen bitartean. Ez dira egoera horretan egon ziren auzotar guztiak, baina bai horien guztien ordezkariak.

Bihoa hemen gure esker ona guztiei; haien izenean, zazpi lagun hauekin hitz egin nahi izan dugu egun haiek nola bizi izan zituzten jakiteko.

Lehenik eta behin, zelan zaudete?

Isa: Niri lau PCR proba eta serologia bat egin dizkirate eta guztietan negatibo eman dut.

Ainara eta Itxaso: Guk ere, Isak bezala.

Zuriñe: Nik katarro handia izan nuen pandemiaren hasieran, eta hamabost egun eman nituen etxean ia logelatik atera gabe, baina ez zen Covid19. Geroago hainbat proba egin dizkirate eta negatibo eman dute guztiek.

Aingeru: Niri egindakoez ere negatibo.

Paco: Niri ere hainbat proba egin dizkirate, eta momentuz ondo.

Iñaki: Ondo nagoela uste dut. Izan ere, guri ez zaigu inolako probarik egin, nahiz eta ahoz, sinadurak bilduz, eta enpresa-batzordearen bitartez eskaerak egin. Gerentearen arabera, ez da beharrezkoa, gaur gaixorik egon batzaitetzeko eta bihar batek daki... Sumingarria da, garbitzaileak izanik eta koronabiruseko infekzio-guneetatik zetorren arropa guztia garbitu ondoren, inolako testik egin ez izana.

Iñaki, enpresak beraz ez dizue inolako testik egin. Ezta Osakidetza ere? Ez duzue inolako babes instituzionalik izan?

Iñaki: Osalanekin hitz egin nuen eskatzeko mesedez enpresatik pasa zitezen, ea segurtasun neurriak egokiak ziren. Prebentzio teknikariarekin hitz egiteko esan zidaten, baina pandemiaren ez da figura hori egon. Botata egon gara, baina uste dut krisialdian, langileria oro har oso baztertuta egon dela. Osalanek ez du ezertarako balio izan, ezta antzeko lan-ikuskaritzak ere, Sidenorren frogatuta geratu zen bezala.

Hilabete eta erdi etxean konfinatuak. Zuek funtsezko jardueretako langileak izanda, lanean jarraitu duzue gainontzekoak etxean atera gabe geundenean. Zelan bizi izan zenuen egoera hura?

Isa: Hasieran beldur handia eta antsietatea ere izan nuen. Antsietate horrek gaixotasuna bera izateko beldurra sortzen zidan. Non sartzen ginen ez genekien... Nire kasuan, gure inguruan ia gaixo denak ziren positiboak. Birusa guregana heldu zen eta lanean hasi ginen ia babesik gabe, ez baitzegoen jantzirik, eta egunero protokoloa aldatzen zen. Gure lana zen, eta egin beharra zegoen, baina beldur handia nion, batez ere gaixotasuna etxera eramateari, semea edo aitona kutsatzeari...

Ainara: Ni oso antzekoa. Isak zioen bezala, beldur handiena etxera eramateari nion. Ospitalearen erantzuna ez da zuzena izan: ez materialari dagokionez, ez ematen ziren aldaketek erantzuteko orduan. Etengabeko protokolo-aldaketak zeuden, unitate berriak sortu dira, eskarmentu handiko jendea hasiberriekin nahastu da, etengabe mugitu gaituzte... Dena bat-batekoa izan da. Egoera kritikoetan ez duzu astirik ezer pentsatzeko, eta gero etxera iristen zarenean, orduan pentsatzen duzu ea behar bezala babestu zaren...

Itxaso: Ni Gurutzetako ospitaleaz ariko naiz, hor egiten baitut lan, baina beste lankide batzuek esan didate beste zentru batzuetan berdina zela: etengabe aldatu dira protokoloak, eta aldaketa eta zalanza horiek antsietate eta haserre handia sortu zuten, aldaketak iristen ziren aldi berean, gauzak falta zirelako.

Ainarak esan bezala, kritikoan unitate berriak sortu ziren lehen ez zeuden lekuetan. Gurekin lan egitera etorri ziren lankide berriak, borondate osoa jartzen zuten, baina ez zekiten paziente kritiko batekin aritzen. Eta guk egin beharrekoari haiek zaintzeko eta laguntzeko ardura ere gehitu behar! Plangintzarik gabe lan egiten genuen, ia pentsatu gabe. Egin, egin eta egin, besterik ez.

Lanera joatean sentitzen nuen sentsazioa oso arraroa zen. Bakarrak bizi ginela zirudien. Ni oinez joaten naiz Gurutzetara, eta ez nuen inor ikusten. Auto bakar bat ere ez! Film batean bizi nintzela zirudien! Eta horrek ere antsietate handia sortzen zuen.

Ainara: Horrek bere alde ere ona bazuen. Etxekoa ez zen norbaitekin ere hitz egiteko aukera ematen zuen gutxienez...

Paco: Aldageletara iristen ginenean, zain nengoen lagun guztiak agertzeko. Gure kasuan, beldurra sentitu nuen. Itxasok eta biok seme asmatiko bat dugu eta duela urtebete ospitalerata egon zen. Biok egiten dugu lan ospitalean, eta ahalegin guztiak egiten genituen ez kutsatzeko, noski, baina gure semeari gaixotasuna transmititzeko beldurra beti egon da hor.

Zuriñe: Zahar-egoitzaren kasuan, desberdina da. Gu, laguntzaile bezala, oso hurbilekoak izaten gara adinekoekin. Kasu askotan, bere familia bakarra gara. Eta eskularruekin ikutu behar izatea, edo logeletan atera gabe



ITXASO ESPELETA: Gurutzetako ospitaleko ZIUn erizaina

PACO GUANTER: Zerbitzuetako langilea Basurtuko ospitalean

“ Etengabe aldatu dira protokoloak, eta aldaketa eta zalantza horiek antsietate eta haserre handia eragin zuten. Plangintzarik gabe lan egiten genuen ia pentsatu gabe. Egin, egin eta egin ”

“ Itxasok eta biok seme asmatiko bat dugu. Ahalegin guztiak eta bi egiten genituen ez kutsatzeko, noski, baina beldur handia nion gure semeari gaixotasuna transmititzeari ”

egon behar zuten zergatia azaldu behar izatea izan da niretzat gogorrena, batez ere mentalki. Gure kasuan ere, etengabeko protokolo-aldaketak egon dira. Egoiliar gehienek narriadura kognitiboa dute, eta ez dute ulertzen zer gertatzen ari den. Azaltzen genien, baina ordu batzuetan ahaztuta zuten, eta uste zuten haien familiek eta guk utzita genituela... Nik ere asma daukat, eta asmatikoa den urtebeteko neskato baten ama naiz. Ahalik eta gehien babesten saiatu gara, baina une horretan kezka handiago zen egoiliarrekin bizi genuenagatik. Gure zahar-etxean zortea izan dugu. Bi kasu positibo baino ez dira izan, eta egun berean lekualdatu zituzten.

Aingeru: Beldurraz gain, gure kasuan erantzukizun handia genuen. Edozein akatsek kutsatzea ekar lezake, oso pertsona zaurgarriak baitira. Martxoaren 14tik bisitak egiteko itxita egon zen egoitza, eta bagenekien birusa sar-

tzen bazen pertsonaleko norbaitek sartzen zuelako zela.

Iñaki: Nire kasuan, beldurrarekin eta haserrearekin ere bai. Ez genekien babes egokia genuen ala ez; ordezkarri sindikalok ekipamendu hobeak eskatzera joan behar izan genuen, hasieran genuena ez zitzaigulako egokia iruditzen... Argi dago nahitaez joan behar zela lanera, baina uste nuen kutsatzeko arriskua kontuan hartu gabe bidaltzen gintuztela lanera.

Eta orain? Nolako sentimendua duzue orain?

Aingeru: Bada, nire kasuan, nolabaiteko harrotasun-sentimendua, ez baita kasu askorik izan, eta horrek esan nahi du ez dela akatsik egon.

Itxaso: Gurean aldiz, unitatean %30eko he-riotza-indizea izan dugu, eta nire sentsazioa da handiagoa izan dela. Agian nire egoera emozionalak okerrago ikustera bultzatzen nau...

Familiak oso urrun egon dira gaixoengandik, senitartekoa han utzita berriro ikusiko ote zuten jakin gabe... Orain bajaran dauden lankide asko dauzkat. Une latzenetan jo ta ke aritu gara, baina gainezka egin dute askok. Orain, erabateko nekea da dugun sentsazioa.

Ainara: Nekeaz gain, astuntasun sentsazioa ere badut, nolabait egoerari irtenbiderik ez ikusteagatik. Haserre nago, jende askok ahalegin handia egiten duen bitartean, jarrera arduragabeak ikusten ditugulako inguruan, zer ondorio izan ditzaketen jakin gabe.

Iñaki: Nire sentimendua hasieraren antzekoa da. Bakarrik gaudelako sentsazioa, eta gaixotasuna hartzeko arriskua beti presente. Neurriak egokiak diren jakin gabe jarraitzen dugu, eta, gainera, betetzen zen apurra beteazari utzi zaio deseskaladarekin. Pandemiaren gailurrean bi langile zeuden botoiak eta kutsatzeko leku arriskutsuenak garbitzen eta desinfektatzen. Bada, bi pertsona horiek berriro ekoizpena eraman dituzte, eta, beraz, beldurra areagotu egiten da.

Kutsatuen kasuen ehuneko handia Osakidetza langileengan eman da. Nola zeuden ospitaleak? Materiala eta Norbera Zaintzeko Ekipamendua nahikorik zegoen (EPlak)?

Isa: Larrialdietan nahikoa material izan dugu, baina solairuetan, adibidez, lankideak zabor-poltsekin aritu ziren lanean. Horregatik gero egondako kutsatze-kopuru handia! Pertsonalaren erdia baino gehiago kutsatu zen, familien artean benetako dramak sortuz. Hasieran maskara jartzeko erabakirik ere ez zegoen!

Ainara: Argi dago hau ez zuela inork espe-ro, baina berandu ibili zen materiala eskatzeko. Kritikoan unitateetan materiala egon da, baina une batzuetan engainatuta sentitu naiz. Material nahikorik ez zegoela esan beharrean, hasieran esaten zitzaigun kutsatzeko arriskua ez zegoela airean, tantetan baizik... Eta EPlak faltan ez bazen ere, babes materialagatik borrokatu behar izan dugu. Hasieran esan ziguten ez zela maskararik eraman behar, irudi txarra ematen genuelako!

Itxaso: Gure zuzendariek inozoak bezala tratatzen gaituzte, eta benetako egoera azaldu beharrean, beraien ustetan jakin behar duguna baino ez digute esaten. Engainatzen saiatzen dira, gu ez haserretzeko, baina horrek



IÑAKI BLANCO: Garbitegi industrial bateko langilea

“Nire enpresan ez zegoen inolako protokolorik. Gaur egun, idatziz eskatu badut ere, oraindik ez dago prebentzio-plangintzarik”

ordea gure haserre handiagoa izatea sortzen du, argi baitago adarra jotzen ari zaizkigula.

Egia da, halaber, txartela duten pertsonak baino sar ez zitezkeen guneetan materiala faltan izan dela. Beraz, gutako batzuek materiala lapurtu dute. Horrela izan da eta horrela kontatzen dut.

Paco: Nire kasuan, material nahikoa egon da. Kontrola egiten hasi ziren, desagertzen ere hasi zelako, baina nahikoa izan da oro har.

Aingeru: Gu, zahar-egoitzan, iragazkirik gabeko oihalezko maskarekin hasi ginen, eta bagenekien ez zutela balio. Handik bi astea, pantaila eman ziguten.

Zuriñe: Eta bi kasu positiboak agertu zirenean iritsi zen material guztia.

Iñaki: Nire enpresan ez zegoen inolako protokolorik. Esan dudan bezala, sindikatuetako ordezkariok eskatu behar izan genuen. Eta gaur egun, idatziz eskatu badut ere, oraindik ez dago prebentzio-plangintzarik.

Nolakoa izan zen lan-giroa? Lanorduak...? Zelan bizi izan zuten gaixoeak, adinekoak...?

Isa: Nire kasuan tentsio handia zegoen. Emozioak azalean, baina taldean oso ondo lan egin dugu. Eta gaixoeak pena handia eman didate. Ordu asko boxetan sartuta, senideak ikusi ezinean, eta txunditu egiten ziren gu ikustean, zer gertatzen zen ulertu gabe. Edo jendea bakarrik hiltzen dela ikustea... Oso gogorra da.

Ainara: Bisitak asko murriztu ziren hasieran, gero guztiz, eta gaur egun oso zorrotz jartzen ari dira. Eta egoera horren ondorioz, gaixoa gizatasuna galtzen ari da, Eta oso kontraesan-korra da, mugak irekitzeko ekitaldiak antzeten diren bitartean edo tabernetako terrazak bete ditzakegun bitartean, gaixoeak ezin izatea senitartekoen bisitaldirik hartu... Beharrezko euste-neurria dela ulertuta, eta une batzuetan bisitaldirik izatea ezinezkoa zela onartuta, baina aisialdia baimentzen bada, sufrimendu une horietan laguntza galaraztea...

Angeru: Gure kasuan, lana biderkatu egin zen. Adibidez, egoiliarrek elikatzeko jangelan elkartu beharrean, banan-banan egin behar da gela bakoitzean. Langile berberekin eta denbora berean askoz lan gehiago egitea eskatzen zitzaigun. Erreleboak bere orduetan egiten ziren, baina lan asko egin gabe gertzen zen. Azken batean, askoz zerbitzu okerragoa ematen zen.

Zuriñe: Elikatu edo hezetasun-aldaketak egin behar zaizkien pertsonen ari gara, eta hori dagokionean egin behar da, lan-karga biderkatu arren. Jo eta ke aritu gara, eta langileen arteko babesa oso ona izan da eta asko lagundu du, baina neke handia egon da.

Erabiltzaile askok behera egin dute eta asko galdu dute. Ibiltzen ziren pertsonen ibiltzeari utzi diote, eta haien oso gogorra izan da.

Angeru: Nire ustez egoiliar asko hil dira, ez Covid 19gatik, baizik eta penaz. Familiakoak ez ikusteagatik, egun osoan negarrez egoteagatik ezer ulertu gabe... Gaur egungo egoera antzekoa da. Egoiliar askok ez dute ulertzen zergatik egon behar duten beren senideengandik 2 metro edo zergatik dagoen pantaila bat haien artean...

Iñaki: Gure kasuan, enpresan lanaldia %40 murriztu zen hoteletako arropa jasotzeari utzi geniolako... baina ospitaleetatik jasotzen ge-

nuen arropa kopurua asko handitu zen. Lehen, enpresan bakarrik San Eloy ospitaleko arropa garbitzen genuen, baina krisia hasi zenetik, koronabirusa zuten gaixoeak egon diren ospitaleetako arropa guztia jasotzen hasi ginen. Estualdi handiko egoera izan zen, lan-karga ez zelako murriztu, baina bai lanaldia. Une honetan, Aldi Baterako Lan Erregulazio Espediente egoeran gaude gutxienez abendura arte. Kantabriako zentroko lankideen %100 Lan Erregulazio Espediente egoeran dago, eta hona etortzen da haiek egiten zutena. Hemen gero eta zerbitzu gehiago irekitzen dituzte, eta lan-karga handitu egiten da; beraz, lan-karga handiagoa dugu, eta lan-talde txikiagoa.

Egunero ordu berean balkoietara ateratzen ginen zuen lana txalotzera. Nola baloratzen duzue ohitura bihurtu zen ekimen hura? Uste duzue zainketak beste interesen gainetik, adibidez interes ekonomikoen gainetik jartzeko baliogarria izan dela krisi hau?

Zuriñe: Ni oso kontziente izan naiz moda bat bezala atera zela eta hau alarma-egoera igaro ostean oso azkar ahaztuko genuela. Eta uste dut horrela izan dela. Duela gutxi alabarekin egon naiz parkean, eta zenbait portaeraz txundituta joan behar izan dut. Txaloek ez dute ezertarako balio, gero horrelako egoerak gertatzen badira.

Ainara: Oso ezkorra naiz. Lehen eguneko txaloek harritu eta hunkitu egin ninduten. Baina denborak aurrera egin ahala, errutina bihurtu zen, jolasa... Nik neuk utzi nion ateratzeari. Denborak aurrera egin ahala, nire ustez, murrizketak etorriko dira, eta oinarrizko langileetako laguntza hori ahaztu egingo da.

Iñaso: Txaloek hasieran asko hunkitu ninduten, baina gero asko saturatu ninduten. Eta asko gogaitu ninduen auzoan DJ asko agertu izanak, edozein ordutan musika leihotik kanpora jartzen zutenak. Horretaz kexatu nintzen facebooken, gure atsedenearekiko errespetua eskatuz, eta erantzun zidaten beti jartzen genuela gaixoen aitzakia, guretzat bakarrik eskatzen genuen bitartean... Eta berriro ere agertu dira erabiltzaileen errespetu faltak. Heroiak izatek bilauak izatera igaro gara egun gutxiaren bueltan. Eta "soldata ordaintzen dizut" esaldira itzuli gara bat-batean. Bestalde, murrizketak egongo dira berriro, ziur nago. Oraingoz ez,



ZURIÑE CHAMIZO:
Zahar egoitzako gerokultorea

“**Oso hurbilekoak izaten gara adinekoekin. Kasu askotan, bere familia bakarra gara. Eta eskularruekin ikutu behar genituelako, edo logeletan atera gabe egon behar zuten zergatia azaldu behar izatea izan da niretzat gogorrena, batez ere mentalki**”

AINGERU LÓPEZ:
Zahar egoitzako gerokultorea

“**Nire ustez, oro har pandemia honetan zahar-egoitzetan egoiliar asko hil dira, Covid19agatik aparte, penaz ere. Familiakoak ez ikustez, egun osoa negarrez egoteaz ezer ulertu gabe...**”

hauteskundeetara deituta gaudelako, baina luze gabe.

Iñaki: Ni ez nintzen balkoira ateratzen, egia esan. Osasun-sektorea baino ez zela txalotzen uste dut, eta ez dut esan nahi merezi ez dutenik, baina badirudi funtsezko jardueretako gainontzeko langileok ez ginela existitzen. Nire ustez, nik lan egiten dudan sektorea ez da inoiz aitortuko, eta nirea bezala beste hainbat.

Txalo zaparradari dagokionez, uste dut txalo egitera irteten zirenak modagatik ateratzen zirela, eta medikuak baino ez zituztela txalotzen. Niri gai hori nahiko faltsua irudituko zitzaidan. Ni haien kontzentrazioetara noa, bitarteko gehiago eskatzera, osasun publikoa babestera pribatuaren aurrean, eta langileen lan-eskubideak defendatzera. Hor egon behar da, ez balkoian txalotzen pandemian.

Zentzu horretan, zalaparta handia atera zuen El Correok osasun langileen soldatez argitarutako artikulua batek. Gogor salatu zuten sindikatuek eta hainbat langileek gezurretan aritu zela egunkaria... Zer iritzi duzue honen gainean?

Paco: Artikulu horretatik nabarmendu beharreko lehen gauza, gezurra zela da. Ematen

ziren datuak ez ziren benetakoak, eta gero zuzendu egin behar izan zituzten. Oso datu neurrigabeak ziren, eta, gainera, datu publikoak dira, erraz kontrastatzeko modukoak.

Itxaso: Nahita egin zuten. Argi dago. Kaze-tari batek ez al du hain gauza erraza kontrastatzen? Nabaria da. Eta egun batzuk geroago, Urkullu lehendakariak, (kanpainarean gainera!) adierazi du ahaleginak egin beharko ditugula... Diskurtsoa prestatzen ari dira etorriko denerako.

Ainara: Berriz ere publikoa baztertzen dugu, osasuna kasu honetan, baina dena delakoa, murrizketak egiteko geroago. Nire ustez, estrategia politikoa da. Eta oso zikina eta oso une txarrean.

Itxaso: Nire ustez, oraingoz ez dira murrizketak egitera ausartuko. Pandemia oso gertu dago, eta gizarteak ez luke onartuko momentu honetan. Baina murrizketa horiek gauzatze-ko iritzi publikoa prestatzen dabilzala esango nuke.

Zuriñe: Egoera horrek ere gure eremuan eragina izango du. Arlo publikoan murrizketak agertzen direnean, pribatuak bereak egiteko ere aprobetxatzen du. Eta gu jada oso estu gabiltza langile aldetik.

AINARA GARCÍA:
Gurutzetako ospitaleko
Kardio-Kritiko
unitateko erizaina

“Argi dago egoera hau ez zuela inork espero, baina berandu ibili zen materiala eskatzeko. Kritikoan unitateetan materiala egon da, baina une batzuetan engainatuta sentitu naiz. Hasieran esan ziguten ez zela maskararik eraman behar, irudi txarra ematen genuelako!”



Alarma egoera atzean utzita eta “normaltasun berria” deitu duten horretan sartu berriak gara. Hala ere, dena bide onetik zihola ematen zuenean, Euskadin agertu diren brote berriak ospitaleetan gertatu dira. Zergatik hain zuzen ere ospitaleetan zuen ustez?

Ainara: Ospitaleetan egia da jende asko mugitzen dela. Ere mu zaurgarria da, leku itxia delako, gaixoen egoera fisikoagatik, mugimendu handia dagoelako, bisita asko...

Itxaso: Dirudienez, Basurtuko ospitalean zirkular bat bidali dute, langileei leporatzeko berragerraldi berriaren erantzukizuna, eta hori ez da bidezkoa. Egia da erlaxatu ahal izan garela apur bat, eta neurri guztiak ez mantendu hain zorrozt, baina nik uste dut oso ondo egin dugula eta langileei errua leporatzea oso bidegabekoa dela.

Horiez aparte, brote handi berrien beldur zarete? Eusko Jaurlaritzak hauteskundeak uztailaren egitea justifikatzeko udazkenean brote berriak agertzeko arriskua aipatu du adibidez... Zerbait aipatu dizuete horren inguruan?

Itxaso: Logikoagoa da udazkenean aurreikustea berragertze bat udan baino; izan ere, udan kalean gehiago egoten gara, aire zabalean, eta berragerraldien arriskua batez ere leku itxietan dago. Era berean, gripearekin nahas daiteke, eta gripeak berak hainbat hildako sortzen ditu urtero.

Ainara: Inork ez digu ezer esan bigarren berragertze bati buruz, ez baitut uste datu frogagarririk dagoenik. Gerta daiteke, eta ez litzateke batere burugabea birus ezezagun berriak agertzea ere! Orain arte, beste leku batzuetan hedatu diren beste birus batzuetatik libratu gara. Ziklikoki horrelako gertakari berriak egon daitezkeela uste dut.

Zuriñe: Inork ezin du ziurtatu bigarren berragertze bat egongo denik. Aurreikusit egin da, eta zenbait portaera ikusita aurreratu egin daitezkeelakoan nago.

Prest gaude bigarren konfinamendu bat jasateko? Eta osasun sistema? Prest daude Osakidetza, zahar-egoitzak, edo zuen lan-eremuak pandemiaren bigarren atal posible bati aurre egiteko?

Ainara: Bi hilabete hauek ikastaro trinkoa izan dira guretzat. Egia da birusaren arriskua berpiztuko balitz martxoan izan genuen bezala, orain errazagoa izango litzatekeela guretzat, eskarmentu handiagoa dugulako, baina mentalki lehen aldian baino aldapatsuagoa izango litzateke.

Zuriñe: Ni neu uste dut ez nagoela prest berriro lan karga hori pairatzeko. Materialari dagokionez, uste izan nahi dut prest egongo garela. Ez litzateke logikoa izango, bizi izan duguna jakinda, eta errepikatzeko aukera dagoe la jabetuta, gure lan eremuetan bigarren agerraldi baterako prest ez gaudela pentsatzea.

Paco: Osasun-sistemak baietz uste dut. Ekonomikoa, ez. Hondoratu egingo litzateke halako berragertze indartsu bat balego. Osasun-sisteman ikasi ditugu jada birus honen nondik-norakoak, protokoloak indarrean jartzen...

ISA BLANCO:
Santa Marina ospitaleko
larrialdietako zerbitzuan
erizaintzako auxiliarra

“Birusa guregana
heldu zen eta lanean hasi
ginen ia babesik gabe,
ez baitzegoen jantzirik...
Egunero protokoloa
aldatzen zen... Beldur
handiena gaixotasuna
etxera eramateari nion,
semea edo aitona
kutsatzeari”



**Bukatzeko, krisi honetan bizi izandako guztia-
ren artean zerbait ona eta txarra nabar-
mentzean, zer aipatuko zenukete?**

Itxaso: Nik onaren artean, lankideon arteko adiskidetasuna nabarmendu nahi dut. Lankideren bat adoregabeago bazegoen, gainerakoek berehala laguntzen zioten. Oso giro ona sortu zen eta denok batera jardun genuen.

Ainara: Ba nik itxaropena daukat haurrengan. Zein ongi eraman duten konfinamendua. Adibidez, nire semearen kasua: zein ondo hartu duen, zein erraz barneratu dituen zenbait errutina, eskuak garbitzea, maskara... Parkea ahaztu eta plastilina eta beste jolas batzuk berriaz aurkitzea.

Iñaki: Ba nik txarra aipatuko dut: klase leherketa bat izan da. Frogatuta geratu da

langileok ez badugu ekoizten, ez dela aberastasunik sortzen eta ez duela ezerk funtzionatzen. Baina hala ere, ez dut ikusten klase-kontzientzia gehiago sortu denik, ezta borrokarako gogo gehiago ere. Eta gainera datorkigun krisialdi ekonomikoa oso larria izango da langileontzat: kaleratzeak, murrizketak, soldaten jaitsierak, langabezia... Krisiaren zama berriro ere langileon sorbaldeetan kokatu nahi dute goikoek.

Paco: Niretzat okerreana, argi eta garbi, izan den heriotza kopurua izan da, eta modurik ankerrenean gainera: askotan senideei agur esan ezinik. Eta, bestalde, alderdi positibo gisa, azpimarratuko nuke gizarteak ikasi duela, denbora gutxi bada ere, osasuna baloratzen, eta funtsezkoa dela.



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro eskrata IO

AUPA ATHLETIC

*Regalos
Omega*

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

LASTER

*Elektrizitatea
elektronika*

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

Santer
BAR & CAFE

Afariak ostirala
eta larunbatetan

Etxeke berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

Uztailak 16 osteguna

Bilbao Uda 2020 kultur programa

12:00 Azoka parkean.

Musika animaziozko ikuskizuna:

Panpotx Kultur Elkarteak:

"Kattalinen bidaia".

Uztailak 30 osteguna

Bilbao Uda 2020 kultur programa

12:00 Azoka parkean.

Kale-ikuskizuna:

D'Albeniz: "Boom clap, magia gara!".

Abuztuak 6 osteguna

Bilbao Uda 2020 kultur programa

19:30 Azoka parkean.

Kale-antzerkia:

Markeliñe: "Crusoe".



Abuztuak 20 osteguna

Bilbao Uda 2020 kultur programa

19:30 Azoka parkean.

Zirku-ikuskizuna:

The Funes Troup: "Aukerak".



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (iraila-urria-azaroa) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi irailaren 7a baino lehen.

Patata tortilla karamelatutako tipularekin



Osagaiak: 4 patata ertain, tipula 1, 6 arrautza, oliba olio, gatz eta azukre pixka bat

Lehenengoz, patatak eta tipula zuritu eta txikitu. Bota olio zartagin txiki batean tipula eta azukrea karamelizatuko, eta erreserbatu. Beste zartagin handi batean olio gehiago bota, eta bero dagoeanean, bota patatak eta erreserbatu dugun tipula karamelatuta. Frijitu 15 minutuz. Ondoren, kendu olio eta gorde patatak eta tipula plater batean. Honi gehitu behar dizkiogu 6 arrautzak eta gatz pixk bat. Bitartean, jarri olio pixka bat zartaginean eta berotu, bota nahasketa eta frijitu 3 minutuz. Amaitzeko, plater handi batekin buelta eman eta beste 3 minutuz utzi. Errepikatu egingo dugu azken hau, barrutik eginda geratu arte.

Zailtasun maila: Erraza.

ARSENIO TABERNA

Ordutegia: **astelehenetik ostiralera**

7:00etatik 23:00ak arte

Clara campoamor, 6 (zorrotza)

Telefonoa: **94 497 10 03**



Doinua:

Lurreranpean sar nindaiteke

San Joan bezperan momentua da

herriko plazan batzeko

sua bihurtuz mintzen gaituen

guzti horren alfabeto

penak sutara bota ahala

gu geu gero (e)ta hobeto

jendea falta da baina sua

egurrez beteta, lepo

nahiz eta egur nahikorik ez den

txar guztia erretzeko

Asier Urkiza



Derbia

Oihane Amantegi Uriarte.

Elkar. 2020. 100 orrialde.



Ibai bat, Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko bazter galdu batean, zehazten ez den garai ia mitiko batean. Horra eleberri labur bezain hipnotiko honen kokalekua. Eta ibaiaren ertzetan bizi den jendea: ezta biltzen duten nekazari zuri pobreak, ibaian bainatzen diren andre beltz mardulak, eta mundua bere magia guztian deskubritzen duen haurraren begiak, bizitzari nahiz heriotzari begira.


Estreinaldi ausarta egin du Oihane Amantegik literaturaren munduan: estilo pertsonal bat onduz, idazkera dotorean, kontakizun original bezain indartsua lortze-

ko. Urrunean entzuten den hegoalde sakoneko harmonika-doinu bat bezain liluragarri eta malenkoniatsua.



Skabidean: "Izaera"

(La Cupula Music) 2020



Nire gustu pertsonalak ardatz hartuta beti ildo beretsua jarraitu izan dut diska iruzkinak egiterako orduan. Baina honakoan, doinu gogorretatik aldenduz erritmo tropikalagoen bila joan naiz. Instagramen ikusitako elkarrizketa batean Iruñerriako talde honen kalitatea aipatzen zuten eta beraien izena aspalditik entzunda nuen, nigan interesa piztu zuten. Beraien zuzeneko bideo bat ikusi ondoren berretsi nuen

lehen aipatutako elkarrizketa horretan ziotena. Gerora, aurtengo otsailan ateratako "Izaera" osatzen duten abestiak etorri ziren.

Kaki Arkarazo (Negu Gorriak, M-ak...) mitikoarekin iaz Andoaingo Garate Estudio esanguratsuetan grabatu zuten lan berri hau. Talde gaztea dugu Skabidean baina haien kalitatea eta heldutasuna nabarmena da. Ez naiz estilo honetan aditua baina instrumentazioan lortutako soinua eta batez ere hiru nesken ahots tinbre ezberdinak ematen duten kolorea azpimarratuko nuke. Proposamen freskoa 11 gazte hauek dakarkigutena zalantza izpirik gabe eta zuzenean ikusteko gogo handiak gainera. Pena handia beraien zuzenekoaz gozatzeko aukera ez izatea egoera honetan. Bitartean, beraien "izaeraz" disfrutatzen jarrai dezagun.

Ibai Barrios

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefona: 94 442 17 12

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Dantza zaitezte, madarikatuok

Lantegiak lepo. "Agerraldiak kontrolatuta daude". Futbol liga guztiak martxan. Alemanak Mallorcan. Mugak irekita. Amazonen irabaziak gora. Bizikletak agortuta. Perreoak darrai. Dantzari traketsa nauzue. Sistemak dantzatzen gaitu, ordea. Baltsean eta perreoan, bietan nahi gaitu neoliberalismoak...

Delako normaltasun berri honek ekarritako albiste zoroetan, bitxienetakoa. Diskotekak ireki bai, baina ez dutela dantza egiten utziko. Diskotekak. Dantza. Debekua. Berriaren goiburua irakurrita irribarrea eskapitzen zaio bati, arauak sor ditzakeen egoera barregarrietan pentsatuz. Eta ez da gogoan harridura eta barregura nahastu dizkigun arau bakarra. Beste batzuetan, baina, amorrutik puntua ere sumatzen da absurdoak eragindako aldarte umoretsuan. Euskal Herriko muga guztiak artean ireki gabe, hau da, bizkaitarrok Nafarroara edo Ipar Euskal Herrira joan ezinda gaudela, alemaniarrek lehorreratu dira Mallorcan; bitartean, birusaren agerraldi berriak han eta hemen.

Okerrena pasatu dela dirudi. Eta dena espero zena baino suabeagoa izan delako sentipen irreala geratu zait. Erabateko geldi-

tzea izango zena, gelditze erdi. Katakklismo totala iragarri ahoa betetzen zuten agintariek lehen baino lehen nahi dute sistema martxan jarri. Tira, ez gaitzen inozoak izan, sistema ez da inoiz gelditu eta. Gelditasuna, mugikortasun eza zetorrela zirudien, baina pausoa geldotu baino ez dute egin. Beste dantza batean aritu. Perreo grinatsua bi hilabetez alde batera utzi, baltsean probatzeko.

Dantza kontuak. Maskara jar ezazu, bi metroko distantzia errespetatu, eskuak garbitu. Lege eskututa bat herri xehea bezatzeko. Poliziarik ezdeusena ere oilaruta, gazteen litroak oztopatuz. Hainbat diru-laguntza oraindik ere kobratu gabe, burokrazia estatalaren menpe. Osasun-sistema, koronabirusa ez beste edozertarako kolapsatuta. Jai herrikoirik ez. Nekane Murga gazteleraz Euskadi Irratian. "Jakina da, baina... orain ez da momentua". Balts geldo bat, begiak itxita dantza daitekeen horietakoa.

Lantegiak lepo. "Agerraldiak kontrolatuta daude". Futbol liga guztiak martxan. Alemanak Mallorcan. Mugak irekita. Amazonen irabaziak gora. Bizikletak agortuta. Perreoak darrai. Dantzari traketsa nauzue. Sistemak dantzatzen gaitu, ordea. Baltsean eta perreoan, bietan nahi gaitu neoliberalismoak. Dorpeak izan arren, hurrengo pausoa nola eman ikastea besterik ez dugu. Irakaslerik onena daukagu gure esku. Bat, bi, bat, bi.

Ikasturte-amaierako jaia hastera doa, herriarrek goraino betetzen dute aretoa. Amaierarik gabeko dantzan murgiltzera goaz, bikoteka ala bakarka, baltsean ala perreoan, musikak agintzen duen eran. Dantza gaitzen botereak dantza gaitzan. Akitu arte.

Asier Urkiza

TXOKO FEMINISTA



Emakumeen lana COVID19aren pandemian zehar

COVID19ren pandemiari esker argi geratu da zeintzuk diren bizitzari eusteko ezinbestekoak: soroetako sasoiko langileak, supermerkatu kutxazainak, erresidentzietako langileak, erizainak eta erizain laguntzaileak, garbiketa langileak, etxeetako langile eta zaindaria, irakasleak... Guztiak oso lanbide feminizatuak, eta bide batez, lan baldintza prekarizatuagoak dituztenak izanda.

Telelanarekin, beste hainbeste. Emakumeak dira gehienbat lana eta zainketak batera eraman behar dituztenak. Gainera, familia unitate harmonikoa eta berdintzailea izan ezean, generoen arteko botere erlazioak indartzen dituen instituzioa izan daiteke. Batez ere biolentzia egoeran bizi direnen artean.

Honengatik guztiagatik, krisialdi sanitarioa, ekonomikoa eta sozialari aurre egiteko neurriak, genero ikuspegiarekin pentsatuak egon daitezen nahitaezkoa da. Pandemia honen ondorioz, berdintasunean eta ekitatean oinarritutako gizarterako bidea behingoz jorratu dezagun.

SALAKETA ARGAZKIA



Segurtasun-distantzia?

2018ko urtarrilean jada salatutako toki beraz arituko gara: Zorrotza Kastrexana errepideko Txorrillo gunea. Garai hartan espaloia utzikeria salatzen bagenuen (ez da ezer egin), orain egoera txarraz gain espalo hori oso estua dela salatu nahi dugu. Pandemia-garai hauetan, non segurtasun-distantziaz mintzatzen den uneoro, badira paseoan aritzeko oso gune erabiliak non ezinezkoa den beste oinezko batekin zeharkatzea errepidea zapaldu gabe.

**Bar
basarri**

**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza



**ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKoak

265€

Sustapena indarrean ++ 4,00 esferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarraeta luxury
OPTICA



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES
Tel. 94 441 62 75



Gorbeira gauez. Animatu eta etorri mendirara geukaz!

Aurten uztailaren lauan egitekoa da, hilargi beteagaz. Gaueko hamarretan lotuko gara Azoka parkean, basorako arropa, ure, behar doguzan elikagaiak, esku/buruko argia eta gogoekaz jantzita.

Pagasarriko bidea hartuko dogu eta basozainaren etxearen inguruan Pastorekortako bidea hartuko dogu. Pastorekorta ingurutik Ugaora jaitsiko gara eta herrie zeharkatute, Saldarian auzotik, Mandoia maldetatik, Zerberioko Ermitabarrirantz joango gara. Ermitabarritik Gezalera joango gara eta handik Bikoxganara igoko gara. Bikoxganatik Pagomakurrera joango gara eta handik, danok ezagutzen dogun bidetik, gurutzerara!!!!

Jaisteko, Murgiera joateko aukera ikusten dogu, han bazkaldu taberna baten eta itzultzeko arrastiko autobusa hartu (busen ordutegia, menua eta dirue aste honetan begiratuکو doguz eta zehaztuko doguz).

Beste aukera batzuk dagoz: Pagomakurren lotu kotxe batzuekaze geure bila etortzeko edo Arteara jeitsi igaze lez.

laz, beste ibilbide bat hartu gendun, laburragoa eta ez hain gogorra. Ondo hasteko euri tantak botetan hasi eban auzotik ateratzean... Beldur barik aurrera jo gendun eta bidea ondo egin gendun Mandoiarte, handik jaisteko bidea oso txarto topatu gendun (egurre ateratzen egon ziran eta bidea guztiz lurpeztute egoan) eta galdu gendun bide ona eta Ermita barrire edo Zubialdera jaitsi beharrean

Sautuolan agertu ginan, ordu bat galduta, gitxi gora-behera. Zubialden mokadu bat jande, aurrera egin gendun eguraldi eskasari kasu gitxi eginda. Bikoxganera heltzean lainoa sartute egoan eta Pagomakurrera joatea erabaki gendun. Hantxen eguraldia ikusita eta berandu zanez (galdutako ordue igertzen zan...), tontorra jo eta Murgiera jaistearen kontuek eginde, ikusi gendun itzultzeko autobusa ez gendule hartuko, beraz Areatzara jeistea aukeratu gendun (baten batek oso txarto hartu baeban ere...) eta beherako bide zaharra hartu gendun. Erditik beste mokadutxo bat janda, Areatzara heldu ginan, antzineko bidetik (oso aldatute topatu gendun baie jaitsi ginan, batzuten basurde bidetatik... baie oso polite).

Autobusa hartute erabaki gendun Artean jatea baie, sorte handie izanda gidarie auzokoa zalako, ikusi gendun dana itxite egoala herrien eta autobusak itxaroten egon zan baieztatu arte. Azkenien auzoko jatetxe baten bazkaldu gendun eta hurrengo urtera arte!!

Hametik animetan doguz basozale oro aurten geukaze etorteko gaueko martxa honetara. Animo eta Basora!!

*Manu Cobo,
Zorrotzako Mendizaleak*

Uda hasi da!

Urte hasiera trakets baten ondoren, uda hasiberri dugu eta honetaz disfrutatzeko ekintzak ere bai. Aurten, Gure Lurrako begiraleen taldeak, Udako Kanpalekua ez burutzea erabaki dugu, COVID-19ak sortutako egoerak baldintza oso zehatzak betetzera behartzen gaituelako. Izan ere, lehenengo neurrietako bat gure udaleku arruntan %50en parte-hartzea jaistea izango litzateke.

Kanpalekua bertan behera geratu behar izan bada ere, Gure Lurra Aisialdi Taldeak osatzen duen begirale lantaldeak Zorrotzan bertan beste hainbat ekintza aurrera eramatea erabaki du.

Ekainaren 22tik uztailaren 10 arte Zorrotzako Auzo Udalekuak burutuko dira, 4-11 urte bitarteko haurrentzat. Aste bat geroago, Gazte Uda programa berriari hasiera emango diogu, 12-17 urteko gazteentzako aisialdi proposamenekin.

Badakigu uda arrunta ez dela izango, jarduteko modu berriak ikasi behar ditugu; eskuak behin eta berriz garbitzen, gure arteko distantziak mantentzea, maskarak erabiltzen eta irribarreak begietan ikusten ikasi behar dugu. Hala ere, disfrutatzeko eta ondo pasatzeko gogoia betiko bera da!

Gure Lurra osatzen dugun familia osoaren partez, uda lasaia eta zoriontsua opa nahi



Argazkia: Vicko Mozara • Unsplash.com

dizuegu. Datorren ikasturtean zuek guztiak berriro ikusteko gogoak ditugu, eta nola ez, udaleku eta kanpaleku zoragarriak antolatzeke gogoekin bueltan egongo gara! Zaindu familiak!



ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Erlantz

Lehen futbolean aritzen nintzen edo korrika egitera joaten nintzen. Orain, etxean egoteko ohitura hartu dut eta ariketa fisiko gutxiago egiten dut.



Agustina

Etxean egunero kilometroak ibili eta gimnasia ariketak errepikatzen nituen. Orain, betiko paseatzeko nire ohituretara bueltatu naiz.

Ariketa fisikoa konfinamenduan:

Ariketa fisikoa egiteko ohiturak aldatu dituzu?

Iratze Pérez eta Naroa Peña



Ander

Inoiz ez dut kirol askorik egin, baina etxean hainbeste denbora egon eta gero, orain iritendakoan gehiago egiten dut. Batez ere gehiago ibili, korrika apur bat egin...



Amagoia

Konfinamenduan zehar ez dut ezer egin, baina orain askoz ere gehiago ibiltzen naiz. Auzoa sakonki ezagutzen ari naiz!



Julia

Etxean interneteko bideoak jarraituz zerbait egin genuen. Orain umeak eskolarik gabe egonda, ateratzean ez daukat ariketa fisikorako denborarik

AUTO ESKOLA
KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

El
10
de
Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Lápices
LIBURVENDA



Untziola kalea, 8
ZORROTZA

Bilbon euskaraz



Bilbao



www.bilbaoeuskaraz.eus



iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANA-ZORROZGOTI ELHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



**I.E.S.
ZORROTZA
B.H.I.**

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

Kutxabank mailegu-plana, udarako planak gauzatzeko aukera izan dezazun.

ONLINE maileguak

40.000 euroraino

ITN: %4,99tik

(UTB: %5,11)*



*Mailegu-kanpainaren eskaintza: **10.000 euroko edo gehiagoko zenbateko baterako; ITN: %4,99;**

UTB: %5,11. Irekitze-komisioa: %0. Adibidea: zenbatekoa: 10.000 €; epea: 72 hilabete; hileko kuotak: 161,00 €; azken kuota: 161,29 €; guztira zordundutako diru-kopurua: 11.592,29 €. **3.000**

euroko edo gehiagoko zenbateko baterako;

ITN: %5,99; UTB: %6,16. Irekitze-komisioa: %0.

Adibidea: zenbatekoa: 3.000 €; epea: 48 hilabete; hileko kuotak: 70,44 €; azken kuota: 70,49 €; guztira zordundutako diru-kopurua: 3.381,17 €.

1.500 euroko edo gehiagoko zenbateko baterako;

ITN: %6,99; UTB: %7,22. Irekitze-komisioa: %0.

Adibidea: zenbatekoa: 1.500 €; epea: 24 hilabete; hileko kuotak: 67,15 €; azken kuota: 67,21 €; guztira zordundutako diru-kopurua: 1.611,66 €.

Online eskatzeko gehieneko zenbatekoa: 40.000 €.

Epeak: 3 eta 84 hilabete artean. Mailegua ematen duen finantza-erakundeak onartu eta aldeko azterketa egin behar du. Eskaintza hau kontsumora zuzenduta dago eta, beraz, kontsumorako ez diren eskaerak eta berfinantzaketak kanpoan geratzen dira. Ezin da beste sustapen batzuekin metatu.

Kanpainaren azken eguna: **2020/09/30.**

Espainiako Bankuak ikuskatutako erakundea. Erakunde Mailegu-emaile: Kutxabank, SA. Kate Nagusia 30-32. 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

Berrir martxan.